

Mikel Aramendi

ANALISTA POLITIKOA

## Posibilista eta pragmatikoa

**e**zker abertzaleak martxoaren 8an autonomiarako eta behin betiko bakerako erabaki eskubiderako egin zuen jendaurreko proposamenari deiturarik ipintzekotan, posibilista eta pragmatikoa dela esango nuke. Errealitatek abiatzen dela, errealitate hori berrori aldatzea proposatuz, baina usu demokrazietan erabilgarriak diren baliabide juridiko-politikoaren bitartez soilik. “Gehienezko programa” ahanzi gabe –ez baita hori kontua–, “litekeena” eta “lortzen dena” uztartu nahi lituzkeela, guztiz zilegia den “indar metaketa” eskema batean... beste joera politiko guztiekiko berdintasunezko joko-zelai batean. Irakurri nuen, beste hainbat herrialdeetan maizago entzuten dena geureganatuz Juan Maria Uriarte gotzainak urtarrilean aipatzen zuen “bake posiblea” kontzeptua gogorarazi zidan. Onerako.

Ez du izen ona posibilismoak gure artean; nekez aurkituko da haren aipamenik, arbuizatzeko ez bada. Pragmatismoa, berriz, norbanakoon bertute legez soilik onesten dugu, moldagarritasunaren baliokide bezala; bere adiera filosofiko edota politikoan, ia guztiz ezezaguna zaigula aitortu beharko genuke, W. James edota J. Dewey zein arrotzak zaizkigun ikusi besterik ez dago. Aitzitik, printzipioak eta hitz



AMAIA SAGASTI

potoloak oso gogokoak ditugu, auzo ditugun herrialdeetako tradiziozko finkatuenari jarraiki: “borroka”, “eskubidea”, “demokrazia”, “indarra” eta horrelakoek gure hiztegi politikoan duten maiztasuna zenbatzea nahikoa da.

Ez da, ziurrenik, aurrera egin behar/nahi duen –non entzun dut nik horrelako zerbait?– herri txiki batentzat pentsaera-eredurik zuhurrena. Txikiak garelako, lehenik. Horrek esan nahi du ezin dugula, ez orain ez inoiz, nahita ere, handien jokoa baldintzatu haiek, nahi gabe ere, gu baldintzatzen gaituzten neurrian.

Zenbat urte behar izan zituen EAJk Eisenhowerren administrazioak 1953ko lehen bederatzi hilabeteetan inolako asaldurik gabe sartu zion ziri estrategikoa gainditzeko? Mende laurdena. Zenbat urte beharko ditu ezker abertzaleak 1989an Ekialdeko blokearen inplasioak ekarri zion erreferentzia eta testuinguru aldaketa erabat hausnartzeko? Espero dezagun gutxi-xeago izatea.

Bestetik, eta koitunturazkoa bada ere ez dirudi denbora gutxirako kontua izango denik, demografikoki zahartzen ari den herria gara. Horren ondorioak psikologian nahiz soziologian barrena politikara nola iristen ari diren konturatzea ez luke horren zaila

izan behar. Euskal arazoaren historikotasuna argi dutenentzat izan behar luke argiena. ▢



Zenbat urte beharko ditu  
ezker abertzaleak 1989an  
Ekialdeko blokearen inplasioak  
ekarri zion erreferentzia eta  
testuinguru aldaketa erabat  
hausnartzeko?



## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Exijitzen zaio Batasunari –era interesatuan– ETA eta kale borroka deitzen duten hori kondena ditzan. Oro

da bat horretan. Argi dute. Eta kondena hori ezean urik ere ez. Adibide argia Euskal Herria Bai (EH Bai) asmoa. EAJk eskema hori bera eraman du Iparraldera EH Bai koalizioa sortze atarian. Legitimotzat jotzen du, arrotza ez, baina bertakoa ez den egoera inposatzea besteok ezinbestekotzat dugun adoste estrategiaren gainerik. Eta alderantziz, bera EAEn Estatuak behar duen kolaboratzaile izan eta ezker abertzalearen aurka daraman biolentziatzeko estrategiak ez du eragozpen izan behar akordiora-

## Etengabea

ko. Gainerakoei galdetzen dien heldutasuna da beren eskasia. Otsaileko 24ko –Bilbon; larunbatean– manifa lekuko. Lehenik debekatu, ondoren

egurtu. Eta nola. Irudiak ikusita nekez justifikatu liteke ertzainen basakeria. Jaun feudala poztu lehen auzoaren bizkar. Hori dio EAJk ugazabari eskaintzen balio gisara, nagusiaren aitzinean beharrezkoa duen balioa. Eta gehienak ados dira nonbait, ez baitute deus kondenatu mutu, gor, itsu bailiran. EH Bai Iparraldea ez baldin bada posible, ez da Batasunak EAEn EAJri bere ardurapeko biolentzia kondena dezan exijitzen diolako, EAJk EAE Iparralderatu nahi duelako baizik. Eta Baiona ez da Gasteiz. ▢